

BERTSOTAN

Taulako Antonio Etxeberriarekin, egunotan BERTSOLARI ESKOLA-ko partaide batek izan duen elkarrizketaren ondorioaz, hona hemen, Taula baserri bera sagardotegi zenean, bertan izandako gertaera xelege baten berri bertsoan.

Sebastian Urreaga «LARGA»-k jarritako bertsoak

Taulan

- Mila zortzireun eta larogeita seyan kaso bat pasa zaigu Taulako egiyan jende asko zeguan sagardotegiyan nunbait pasiak zeuden geienak neurriyan han ibiliyak ziran zelegekeriyan.

(...)

- Esan dedan bezala otsilaren bosta hoiek hola ipintzia ez zait gutxi kosta kastillano koskor bi euskalduna joka Santiyo menditar bat ukullura bota azpitikan zeguen lagunaidi oska.
- Errexagoak dira broman kantatutzen ez kastillanuidi kara bueltatutzen Mineriko gainetik begira jarritzen belar zakarrarekin galtzar garbitutzen berriz hara joatia ez zen atrebitzen.

Ergobian

- Urrango atakia ergobitarrekin nola ibiliak diran Jaungoikuak jakin baliente zebiltzan beren puinalekin jendia atera zan zurezko armekin ezpata ta atalai aitxur kertenakin.
- Hura estuasuna organistarena kastillano koskor hoik eman diotena harentzako zeukaten lenengo fortuna ez bazidan altxa mayian zeudenak berriz ere egingo zute nahi zutena.
- Jose beltza ta Patxi Troyako Benito puskatuko zituzten berrogei halako sokak e(r)aman zituzten eskuak lotzeko Tapalla han zeguen amarratutzeko batek esaten zion gutxi estutzeko.
- Gutxi estutzeko esan dionian bere ernegazioan jo du kokotzian beste bat hartuko dek urrango hitzian ikustak Ergobiyan zer jenio dian nekez bainan seguru errendiru zian.
- Guardia montiajuan zan bere armarekin fusil motxaren puntan bayonetarekin ordurako lotuta zauzkaten sokekin desio zuten bainan ezin ihes egin. Ergobiyan ez dute Taulan bezela egin.
- Dozena t'erdi bertso paperian jarri jaietan kantatzeko entretenigarri ezin ezertxo eman Taulan ziranuidi baizik medalla on bana Ergobitarraidi gallo egin dielako soldadu zaharraidi.